

# noaua

**Orbeldi Dantza Taldea,  
Euskaraldiko  
ariguneetako bat**

**Osasuna babestu eta  
errautegia geratzeko  
aldarriak Kontxa  
inguratu zuen**

**Covid-19ak legealdi  
osoa baldintzatuko du**

**Dana Scarinci Zabaleta, euskaltegiko ikaslea:**

**“Hemen eguneroko bizimodua  
euskaraz egin ahal izatea nahi nuke”**



**FINKA ADMINISTRATZAILEA**  
**AHOLKULARITZA ZERBITZUA**  
**INMOBILIARIA**  
**ASEGURUAK**

**943 573 693**

*Eusko Gudari 35, ORIO*

**GOLDWELL**  
**ELUMEN**

*i  
l  
e  
a  
p  
a  
i  
n  
d  
e  
g  
i*



**mistoa**

**Koloraziotan teknika  
berriak eta iraunkorrak**

Zubiaurrenea 4, ☎ 943 361 951

**RESTORACION**



**ANORGA TRIBI S.L**  
**KRISTALDEGIA**



**Beirazko itxitura sistema berria!!!  
perfil bertikalik gabe!!  
zure balkoia itxi nahi baduzu galdeiguzu!  
aukera zabalak!**

beirazko itxitura  
**seeglass one**  
perfil bertikalik gabe

·komertzial instalazioak ·beira bikoitza ·segurtasun beirak ·dutxa-itxiturak eta irristailuak  
·ispiluak ·barandak ·kristal mota guztiak...



**Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45**

## Albisteak iruditan

# Zumetaren omenez

**H**an eta hemen, apirilean zendu zen Jose Luis Zumeta margolaria omentzen segitzen dute. Bedaio eta Zarate artean, Nafarroako Zaraten "Zumeta bihotzean" izeneko erakusketa zabaldu dute, 20 artisten lanekin. Rukula talde usurbildarrak inaugurazio ekitaldian hartu zuen parte.

Irailaren 26ra arte zabalik izango da asteburuetan: ostiraletan (18:00-20:00), larunbatetan (11:00-13:00/18:00-20:00) eta igandeetan (11:00-13:00). Iragan larunbatean hainbat artistek mural bat sortu eta Rukula herriko musika taldeak kontzertua eskaini zuen.



Iragan larunbatean Rukula herriko musika taldeak kontzertua eskaini zuen Nafarroako Zaraten, "Zumetaren bihotzean" erakusketaren inaugurazio ekitaldian.

## Laburrean

### Jatorri aniztasunari buruzko prozesua atzeratu egin da

Irailaren 24an hasia iragarria zuen Udalak, baina urriaren 15era atzeratu dute aurkezpen ekitaldia. Bertara joateko aurretik eman beharko da izena: parekidetasuna1@usurbil.eus / 943 377 110.

### 11 koronabirus kasu eman dira azken astean

Covid19 kasu guztiok irailaren 8tik 12ra detektatu zituen Osasun Sailak Usurbilen. Martxoaz geroztik hona, 42 dira udalerrir honetan zenbatu dituen koronabirus kasuak.

### Berrogeialdian daudenentzat oharra

Udalak atez ateko sistema egokitu du Covid19a izan edo berrogeialdian dauden etxeetarako. Kasu horietan, berebiziko garrantzia du Atez Ateko bulegora deitzeak: 900 776 776.

# noaua

Kultur Elkarte  
Bordaberri, 3 - Eguzkitzalde. 20.170 Usurbil  
943 360 321 /// elkarte@noaua.eus /// www.noaua.eus  
Jendaurrako ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

**Elkarteko lehendakaria:**  
Idoia Torregarai.  
**Aldizkari koordintzailea:**  
Imanol Ubeda.  
**Idazkaria:** Alaitz Aizpurua.  
**Diseinua:** Erroit S. L.

**Erredakzio kontseilua:**  
Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

**Publizitatea:** Beatriz Alda,  
publizitatea@noaua.eus

**Banaketa:** Iñaki Irazusta,  
Iban Maritxalar.  
**Tirada:** 2.930 ale.  
**Lege-Gordailua:** SS-668-96  
**ISSN:** 1136-6818.

**Inprimategia:** Antza. Zirkuitu  
Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

**Harremanetarako:**  
erredakzioa@noaua.eus



## Gipuzkoako Foru Aldundia



Euskal presoak  
Euskal Herrira!



Luis Aranalde

**B**azen garaia. Aleluia! Inork ulertzen ez duen atzerapenarekin, baina azkenean Vatikanoko aurkeztu zuen duela hilabete pare bat "vademecum" gisako liburuxka. 16 orrialde besterik ez ditu, baina aurrerapauso handia eman du Vatikanoko haur eta gaztetxoek aurka eginiko gehiegikeria sexualak zigortzeko. Bere helburua da abusu horien gainean gogoeta serio bat egitea eta behartzea apaiz eta erlijiosoen arduradunek 21 arau praktiko horiek bete ditzaten berriro abusu kasurik gertatuko balitz beren esparruetan. Nolabait esateko, proposamen sail honetan aholku eta agindu garbiak ematen dira gotzainek eta fraide buruek zer egin jakin dezaten une bakoitzean.

Bi berritasun nagusi agertzen dira "vademecum" honetan:

1.- Lurralde bakoitzeko legeak errespetatzeaz gain, **arduradunak, apaizak, fraideak eta serorak behartzen ditu salatzerab abusu guztiak lekuko autoritate zibilei**, baita zenbait nazioetako lege penalak ez badu exijitzen ere. Helburua da defendatzea abusatua izan dena edo izateko arriskuan daudenak. Betebehar hau Frantzisko Aita Santuak ezarri zuen iazko "Vos



"Aurrerapauso handia eman du Vatikanoko gaztetxoek aurka eginiko gehiegikeria sexualak zigortzeko".

#### LUIS ARANALDE

**"Aurrerantzean ez da gelditzen zirrikiturik abusuak tapatzeko. Arau multzo garbia jarri du Elizak gai honen gainean. Badut esperantzarik"**

estis lux mundi" (Zuek zarete munduaren argia) dokumentuan.

2.- Bigarren berrikuntza garrantzitsua: **fraide buruak eta gotzainak ikertzerab beharturik daude salaketa klase guztiak**: anonimoak, komunikabideetan agertzen direnak eta baita sare sozialetan ere. Ezin dute aitzakiarik atera esanez biktimak ez dituela salatu. Lehen horrela egiten baitzen askotan.

Sarritan abusatutak ez zuen salatzen jasan zituen trauma psikologikoak ez zituelako berriro nahi. Eta datu horiek guztiak gorde egin behar dituzte artiboetan, baita guztiz sinesgarriak ez diren salaketak ere eta dokumentu horiek autoritate zibilaren esku jarri.

Dokumentuaren 21 arauen artean honako hauek azpimarratuko nituzke:

- A.- Biktimak babestu, lagundu eta zaindu egin behar dira.
- B.- Apezpikuen zein erlijiosoen formaziorako ekimenak bultzatu sexu abusuak dituzten ondorioez kontzientziatuzko.
- C.- Egiatzko eta gezurrezko kasuak ezberdintze aldera, besteak beste, komunikabideekin elkarlanean aritzea.
- D.- Ikerketan eta abusuengatik egiten diren epaiketa kanonikoetan aditu laikoak aritzea.

E.- Apaizgaien eta elizgizon izateko hautagaien artean aurretiazko formazioa ematea, heldutasun espirituala eta psikologikoa sendotzeko.

F.- Delituak salatu nahi dituzten biktimentzako erakunde bat sortzea, Elizaren tokiko agintaritzarekin zerikusirik ez duena, eta aditu laikoez eta eliztarrez osaturik dagoena.

Ze aldaketa, jaun-andreok! Duela gutxi arte gorde edo tapatu egiten zuen Elizak abusu kasu oro. Elizaren izen ona salbatzea garrantzitsua go baitzen abusatuei gertutasuna eta laguntza agertzea eta justizia egitea baino. Éric Colomer zinegile frantsesak dokumental gogor bat aurkeztu zuen duela gutxi Arte katean apaizek bortxatutako mojei buruz. Bertan dio: "Elizaren historian emandako suerte guztietako abusuak, pedofiliakoak edota seroren bortxaketak, Vatikanoko horiek denak ezabatu edo baztertu izan ditu sistematikoki".

Aurrerantzean ez da gelditzen zirrikiturik abusuak tapatzeko. Arau multzo garbia jarri du Elizak gai honen gainean. Zabar samar edota axolagabe jokatzuz gero, "ipso facto" edo kolpetik kargua uztea eskatuko diote delitugileari eta justiziaren aurrera eramango dute. Badut esperantzarik.

Alazne Arruti Bengoetxea

Ainhua Azpirotz Eizmendi

Ugaitz Agirre Zapirain

Luis Aranalde

**Artzi**  
Patri 2022  
Iatetxea

bazkariak EGUNERO  
afariak, ostegunetik larunbatera

© 943 362725 • © 688 690 361

**Kima**  
MASAJE LEKUA

·KIROL MASAJEA · MASAJE TERAPEUTIKOA

Nagusia 44, behea LASARTE-ORIA 943 36 61 97

**ZALDIGAIN**

ERREMENTARIA

- Burnia, inox, altzairua eta corten altzairuarekin lan egiten dugu.
- Barandilak, balkoiak, eskailera dekoratiboak, solairuarteak....

www.zaldigain.com • info@zaldigain.com  
Tfn. 943593303 • Mugikorra: 677463867  
Fax. 943300045

# Autoestima eta autozaintza feministari buruzko tailerra

Coral Herrerak bideratuko du (erdaraz), emakumeei zuzendua egongo den doako tailerra, irailaren 25ean (15:00-20:00) eta 26an (9:00-14:00).

Parekidetasun Sailaren tailer bera bi egunetan egingo da; bi saioetarako taldea osatuko ez balitz, bakarra egingo litzateke. Hitzordurako lekua mugatua izango denez, aurrez bideotatik eman beharko da izena: 943 377 110  
parekidetasuna1@usurbil.eus

## Sare afektiboen garrantzia

“Tailer honetan autoestimua, norbere buruaren ezagutza eta ahalduntze pertsonal zein kolektiboa landuko ditugu. Gure burua gehiago eta hobeto maitatzen ikasiko dugu, eta maitasunaz gozatu ahal izateko oinarriak zaintzen. Tresnak garatuko ditugu berdintasunezko bikote osasuntsuak sortzeko, tratatu txar zein indarkeria orotik aske. Bakar-dadeaz, eta bizitzeko eta menpekotasun emozionalari aurre egiteko sare afektiboek



Coral Herrerak bideratuko du tailerra.

du ten garrantziaz ariko gara”, aditzera eman dutenez.

## Katekesian izena emateko epea zabalik da

“Guraso pilaketak ekiditeko, 2. mailatik aurrerako umeak dituzten familiek korreo elektronikoz jasoko dute izen-emate orria eta informazio guztia”, aditzera eman duenez.

Umeak 1. mailan apuntatu nahi dituzten familiek Parrokiaren korreo elektronikoa (salbatoreparrokia@gmail.com) edo Parrokiako telefono zenbakian (943 361 239) utz dezakete telefonoa eta izena. “Gu jarriko gara harremanetan familiekin”.

■ Izena emateko egunak: irailak 14-25.

■ Saioen hasiera eta hauek aurrera eramateko moduak erabakitzeke daude oraindik.

## Helduen Heziketan matrikulatzeko garaia

Irailaren 17an hasiko dituzte eskolak. Hainbat jakintzen ezagutzan sakondu, DBH-ko titulua atera, hizkuntza ezberdinetan trebatu edota lagun arte giro ederrean aisialdiko ekintzez gozatzeko aukera eskaintzen du (bidaia eta irteera kulturalak, antzerkia, pilates, yoga, areto dantzak...). Migranteei zuzenduriko programa ere badute.

## Informazio gehiagorako:

epalarte.eus

943 36 12 73

012734aa@hezkuntza.net

Agerialde Eskola

# Juan Gorriti eskultoreak Zumetaren omenezko artelan bat oparitu dio Usurbilgo Udalari

Usurbilgo Udalak sare sozialetan bidez berri eman duenez, “Juan Gorriti eskultoreak ‘Chromlech’ lanaren pieza bat eman dio Usurbilgo herriari, Jose Luis Zumeta artistaren omenez. Haren semeak entregatu die alkate Agurtzane Solaberrieta eta Usoa Zumetari”. Hala dio eskulturak islaturiko mezuak: “Sentimendua da ikusten ez den kolorea. Maitasunez hirezat Joxeluis”.



Juan Gorritiren semeak entregatu zien artelana Agurtzane Solaberrieta alkateari eta Usoa Zumetari. Argazkia: Usurbilgo Udala.

[www.noaua.eus](http://www.noaua.eus)  
USURBILGO ATARIA

*Usurbil Autoak*  
MEKANIKA-KARROZERIA

SUSTITUZIO KOTXEA DOAN!

ZUMARTEGI INDUSTRIALDEA

943 36 10 79

**ALDAMU**

KONPONKETAK

KALE NAĞUSIA 10- atzekoaldea  
943 372 795

# Covid-19aren eraginez, 2020ko udal aurrekontuak egokitu beharrean

Covid-19ak eragin dituen aldaketa bortitzetara egokitzen goaz eremu guztietan. Baita udalgintza ere. Iazko urte amaieran onartuak zituen 2020rako udal aurrekontuetako hainbat partida aldatu eta egokitu beharrean aurkitu da udal gobernu taldea. “Aurtengo aurrekontuetan izango duen eragina handia da”, zioten udal gobernu taldeak. Egokitzapenok gehiengo osoz onartu zituzten uztailearen 23ko udalbatzarrean.

Iazko urte amaieran onartu zituzten udal aurrekontuok. “Aurrekontuaren exekuzioa ohiko martxan zihoanean ordea, aurreikusitako covid19 birusak astindu itzela eman dio udal jarduerari eta indarrean zen aurrekontuko partidak egokitu behar izan dira, egoera berrira moldatuz”.

Moldaketok uztailearen 23ko udalbatzarrean bozkatu eta onartu zituzten gehiengo osoz EHBilduren aldeko bozkekin. PSE abstenitu zen. EAJ aurka agertu zen.

## Egokitzapenak 2020ko udal aurrekontuetan

■ Diru sarrera murrizketen aurreikuspena: 1.526.063 euroko murrizketa (2020ko udal aurrekontuetako sarrerak, 12.375.710 eurokoak ziren).

1.- Zerga bidezko diru bilketa %10 jaisteko aurreikuspena, 440.000 euro inguru gutxiago biltzeko asmoa.

2.- Alarma egoeran eskaini ez diren udal zerbitzuengatik herritarrei kobratuko ez zaien diru kopurua: 180.981 euro.

3.- Foru Aldundiak udalen finantziario iturri nagusia den foru funtsean aplikaturiko %20ko murrizketaren ondorioz, ia 900.000 euro gutxiago jasoko du Udalak.

■ 2020ko udal aurrekontu



Launa musuko berrerabilgarri banatu ditu Udalak, Herritarren Babes Sarearekin.

## USURBILGO UDALA

### Babes Sarearekin batera launa musuko berrerabilgarri banatu ditu

egokitua, 11.532.000 eurokoa izango da.

■ 682.353 euroko kreditu gehigarriak erantsi zaizkio aurrekontuari: horietatik 337.620 euro aurrez Zumarte Musika Eskolaren eraikina handitu eta birgaitzeko lana bideratzeko eta Udalak duela 15 urte Ugartondon eginiko operazio urbanistikoko baten harira ezustean jasotako Ogasunaren errekerimenduari 283.326 euro ordaintzeko.

### Murrizketak inbertsioetan soilik

■ Ukitu ez eta indartuko diren sektoreak, orain arteko hirurak: tokiko ekonomia (herri merkataritzaren sustapena), euskal kultura eta herritarren gizarte babes (elikadura bermatzeko laguntzak).

■ Udal gobernu taldearentzat estrategikoak eta transbertsalak diren sail edo arloak bere horretan mantenduko dira: euskara, kultura, parekidetasuna, aniztasuna, gizarte zerbitzuak.

■ Udal diru-laguntzetan murrizketarik ez, ezta aurrekontuen lehen atalean ere, “kalitatezko

zerbitzu publikoa eskaintzeko helburuz”.

■ Murrizketa nagusiak udal aurrekontuen inbertsioen atalean. “Geroratu, atzeratu edo moldatu” egin behar izan diren inbertsioak, honako hauek:

1.- Erroizpeko filtrazio sistema. Proiektu estrategikoa, ur hornikuntza burujabearen norabidean.

2.- Pelaiotzen 2020rako aurreikusia zegoen obra, 2021-22 aurrekontuetara atzeratu da. Parte hartze prozesua udazkenean egitekoa dute.

3.- Aginagako Elutx bideko oinezkoen bidea.

4.- Hondeamakina berria brigadarentzat.

5.- Kiroldegiko harmailak.

6.- Troia eta herrigunea lotzeko bidegorria egiteko aurreproiektua.

7.- HAPOarekin lotutako Etxealdiko prozesua datorren urtean egingo da, udazken honetara atzeratu diren beste parte hartze prozesuengatik; Zubieta, Emakumeen Etxea, HAPOari lotutakoak (euskarra + generoa).

8.- Efizientzia energetikoa bultzatzeko obrak.

■ Inbertsio partidetan murriztutako diru kopurua: 971.055 euro.

■ Artxiboa berrantolatzeko proiektua (50.000 euro) beste modu batera bideratuko da.

## Covid-19ak legealdi osoa baldintzatuko du

Urte hasieran udal gobernu taldeak “Usurbiltzen” aldarriean aurkezturiko legealdia koronabirusak baldintzaturikoa izango dela iragarri du udal gobernu taldeak. “Legegintzaldi osoa baldintzatuko du”.

Ohar bidez jakinarazi duenez, “itxialdiak gizarteko alor guztiak kolpatu ditu, baita udalak ere. Gaitzak, gainera, behar berriak azalera eman ditu, eta udal-gobernua hasieran planteatutako neurri zenbait atzeratu edo bertan behera uztera behartuta badago ere, behar berriek neurri berriak hartzea ekarri du: esaterako, oinarriko elikadura bermatzeko dirulaguntza sortzea, herriko merkataritza eta ostalaritza biziberritzeko sortutako erosketak bonuak edo Usurbilgo Kultur Bira eta usurbilkultura.eus plataforma”.

Ezohiko testuinguru honetan, hiru lehentasun nagusi finkatu zituen udal gobernu taldeak, oposizioko udal taldeekin adostuta; tokiko gizarte-, kultura- eta ekonomia-sareak zaintzea. “Jendearen bizitza da zaindu behar dena”, nabarmendu du Udalak.

## Legealdiko plana

Urte hasieran 2019-23 legealdiko plana aurkeztu zien udal gobernu taldeak herritar eta eragile anitzei Sutegin, “Usurbiltzen” aldarriean. Datozen lau urteotan bete beharreko 130 neurri iragarri eta berri emateko usurbiltzen.eus ataria ere martxan jarri zuten.

Egitasmo guztion jarraipena egin daiteke arloka; ze proiektu dauden gauzatuta, abian edo hasteke, usurbiltzen.eus atariko “proiektuak” atalean.

## Akerra birgaitzeko lanak hastear dira

**K**alezarko Pelaioenan kokatuko diren Emakumeen Etxea eta auzotarrentzako udal ekipamendua definitzeko parte hartze prozesu bana abiatuko du Udalak irailaren 19an, iaz Txokoalden egin zuten antzera. Gogoan izango duzue, garai bateko Akerra Gaztetxearen egoitzan, etorkizunean auzotarrentzako ekipamendua ere kokatuko dute.

Jabetzan duen eraikina izanik, Usurbilgo Udalak egitasmo hau zehazteko parte hartze prozesua antolatu zuen. Txokoaldetarrek Akerrako proiektua definitzeko ekarpenak egin zituzten eta prozesu hartan oinarrituta “idatzitako exekuzio proiektu



**Akerra Gaztetxearen egoitzan auzotarrentzako ekipamendua ere kokatuko dute. Proiektua definitzeko, Udalak partehartze prozesu bat bideratu zuen.**

tua gauzatuko da datorren hilabeteetan”. Lanak abiatzearekin direla iragarri dute. “Tramite gutxi batzuk baino ez dira falta Akerrako obrak martxan jartzeko”.

Udal gobernu taldetik au-

rerratu dutenez, “irailean bertan hasiko dira lanak”. Delsa Irun SL enpresak birgaituko du udal eraikina, 165.000 eurotan. Aurreikusituz, “lanek 4 hilabete irautea aurrerikusten da”.

## Mikel Laboa-Artzabal bideko lanak, azken txanpan



**Zubiaurrenea kalea (Antxeta tabernaren pareko zatia) norabide bakarrekoa izango da aurrerantzean.**

“Altzariak eta landaredia jartzeari falta da, hormigoia leuntzea...”, zehaztu du Usurbilgo Udalak. Irisgarriagoa den bidea joan etorrietarako

zabalik da. “Aurrerantzean, Zubiaurrenea kalea (Antxeta tabernaren pareko zatia) norabide bakarrekoa izango da: Artzabal aldetik soilik sartu

ahal izango da autoz bertara”.

Gainerakoan, lehen bezala mantenduko dira norabideak.

### Udal tramite gehiago telematikoki bideratzeko aukera

Administrazio elektronikorako trantsizio fase batean da Usurbilgo Udala. Udalean egin beharreko tramitazioa modu honetan bideratzeko urrats berriak ematen jarraitzen du. “Tramite gehiago egin daitezke, dagoeneko, zerbitzu telematikoen bidez”, iragarri du Usurbilgo Udalak ohar bidez. Eta haietako batzuk hasi eta buka modalitate berean, online, udaletxera joan beharrik gabe. Beste batzuk aldiz “hasi bai, baina presentzialki ixtea beharrezkoa da oraindik ere”.

### Zerbitzu ugari, online

Halere Udalaren helburu nagusia, tramite guztiok lehen urratsetik azkeneraino online egin ahal izatea da. “Erregistroan egin ohi diren hainbat tramite egiteko aukera dago, baita zergak edo isunak ordaintzeko edo gizarte zerbitzuekin zerikusia dutenak egiteko ere; dirulaguntzek ere atal propioa dute, eta, pixkanaka, zerbitzu telematikoen bidez ebaztea da asmoa”.

### usurbil.eus atarian,

### “Zerbitzu digitalak” atalean

Usurbilgo Udalak tramitazioak online egiteko atari propioa du usurbil.eus atariaren baitan, “zerbitzu digitalak” izeneko atalean klikatuta.

### Azken ostiralaren atarian

Hilero moduan, euskal presoan eskubideen aldeko elkarretaratzea astebe-te barru, irailaren 25ean 20:00etan Mikel Laboa plazan, Usurbilen Nahi Ditugu bilguneak deituta.

# Beterri-Buruntza Mankomunitatea osatzeko estatutuen lehen onarpena

**B**eterri-Buruntza eskualdeko sei udalerririk Mankomunitate propioa izatetik hurbilago daude; bide luze horretan urrats berria eman zuten uztailean. Mankomunitatea osatzeko estatutuen lehen onarpena bideratu zuten Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilgo Udalek.

Uztailaren 13an Hernanin eginiko eskualdeko bileran, aurreko legealdian sei udalerrietako udalbatzarrek hartutako konpromisoa berretsi eta Beterri-Buruntzaren tokiko garapen ekonomikoa eta sozialerako Mankomunitatea eratzeko parte hartze prozesuan urrats berri bat eman zuten; estatutuen lehenbiziko onarpena bideratu zuten, behin-behinekoa. Alegazioetarako epea zabalduko da, eta gero sei udalbatzarrek behin betiko onartu beharko dituzte.

“2017tik udalen arteko lankidetzaz hitzarmen bidez funtzionatzen duen egiturari sendotasun juridiko eta administratiboa eskainiko zaio tokiko garapeneren eta sustapen ekonomiko eta enpleguaren eremuan lanean jarraitzeko”.

## “Herritarren ongizatea hobetzeko helburuak lehenesten dira”

Estatutu berriek aipamen berezia egiten diote covid19-aren



Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilgo Udalak batuko dira Beterri-Buruntza Mankomunitatean.

### BETERRI-BURUNTZA MANKOMUNITATEA

**“Beterri-Buruntza Mankomunitateak Hernanin izango du legezko helbidea. Funtzionamendu deszentralizatua izango du, baina udalerririk bakoitzak administrazio-leihatila bana ordezkaturik izango du”**

ondorioei aurre egiteko ehun ekonomiko berrindartu eta etorkizuneko erronkak elkarrekin lantzeko une estrategikoari. “Mankomunitatearen jarduerak ere islatzen ditu, betiere, udan eskumenetik eratorritakoak izango direnak eta baliabideak elkarrekin kudeatuz, Manko-

munitatea osatzen duten udalerrien sustapen eta garapen ekonomikorako eta finean, herritarren ongizatea hobetzeko helburuak lehenesten dira: giza garapen jasangarria erraztuko duten jarduerak proposatzea eta sustatzea, eta horien bidez, ingurumena errespetatu, sozialki arduratsua den jarduera ekonomikoa sustatu eta herritarrak partaide sentituko diren prozesua eskaintzea. Maila zehatzagoan orain arteko enplegu sustapena, ekintzazailtza eta enpresa zerbitzuak ere jasota gelditzen dira”.

Hasieraz onarturiko estatutuok ere baliozkotzat jotzen dute “jarduera hauen guztien bizkardura eta bisioa eskualdeko Garapen Sozioekonomi-

korako Planean jasota egoteko aukera”. Horrekin batera, sei udalerriek emandako urrats berri honekin “eskualdea osatzen duten ehundura produktibo, sozial eta kolektiboekin batera, sektore guztiekin eta publikotasunaren arduraz, Beterri-Buruntza eskualdeko kohe-sionatuagoa lortzeko egitura ezezik, helburu konpartituak lortzeko baliabide egokiak izatea ere aintzakotzat hartzen da. Etorkizunera begira eskualdeko eragile eta herritarren ongizaterako, orain arteko adostasuna eta elkarlanaren balioak indartzeko konpromisoa hartu da estrategia berriak landu eta erabakiak hartzeko gobernantza eredu kolaboratiboan paus sendoak emanez”.

## Ekintzaileei zuzenduriko bi laguntza lerro

### Hutsik diren lokal komertzialak biziberritzeko diru-laguntza deialdia

■ Xedea: lokal komertzial hutsu batean jarduera berri bat martxan jarri nahi duenarentzako alokairu gastuei aurre egiteko laguntza.

■ Laguntza: gehienez bi urterako. Lehen urtean gastuaren

%40a (gehienez 300 euro), bigarren urtean %30a (gehienez 200 euro).

■ Oharra: lehentasuna izango dute egun ez dauden jarduerak edota ixtear izan edo itxi berriak izan diren jardueren segida diren egitasmoek.

■ Informazio gehiago: zabalik.usurbil.eus

### Hasiz Hazi beka deialdia

■ Xedea: Kabiene elkarlan-gunean urtebeteko egonaldia diruz laguntzea.

■ Laguntza: bekaren gehienezko zenbatekoa urtebeterako 1.089 eurokoa. 12 hilabetetako alokairu gastua (75 euro hileko), eta honi dagokion % 21eko BEZ-a (15,75 euro

hileko) izango da”.

■ Nori zuzendua: 2020. urtean enpresa proiektu berri bat duen ekintzaileari zuzendua.

Informazio gehiagorako: enplegu@usurbil.eus 943 371 951

**Bi kasuetan, eskabideak aurkezteko epea:** Irailak 30.



# ETORKIZUNEKO PELAIOENEA ERAIKITZEN

Auzo-ekipamendua / Emakumeen Etxea

**NOIZ:** IRAILAREN 19an

**ORDUA:** 12:00etan

**NON:** KALEZARKO PLAZAN  
[euria egingo balu, Sutegin]

Izen-ematea: [parekidetasuna1@usurbil.eus](mailto:parekidetasuna1@usurbil.eus) edo 943 37 71 10

**noaua**

Jarraitu gure sare sozialak

facebook Instagram

twitter noaua

[www.noaua.eus](http://www.noaua.eus)

# 26 saritu Hurbilagoren udako kanpaina



Argazkietan ageri diren herritarrek Hurbilagoren erosketa-orgak edo "karroak" eskuratu dituzte. "Usurbilen bizi, Usurbilen erosi!" mezua irakurri daiteke orga bakoitzean. Zozketa bidez argitu ziren sarituen izena-abizenak.

Uztailean zehar Hurbilago Elkarteko saltokietan erosketak egin zituztenen artean, erosketa-orgak edo "karroak" zozketa zituen Usurbilgo ostalari eta merkatarien elkarteak. "Usurbilen bizi, Usurbilen erosi!" mezua eta jokamoldea

herritarren artean sustatzea helburu zuen kanpaina 26 izan dira sarituak. Hurbilagotik NOAUA!ra helarazitako argazkietan dituzue.

#### Saltokiak:

Alkartasuna Kooperatiba,

Aldamu konponketak, Arruti harategia, Opil-Goxo, Ane ileapaindegia, Laurok liburutenda, Esnaola janari denda, Juantxo burdindegia, Intza ileapaindegia, Guria taberna, Artzabal taberna-jatetxea, Mikel arraindegia, Otargoxo,

Laukote, Kaffa, Txapartegi harategia, Iturralde farmazia, Lizardi liburutenda, Usurbil Optika, Bixen ileapaindegia, NI ileapaindegia, Aizpurua okindegia, Marije arropadenda, Iratze belardenda, Lurda mertzeria, Itzira eraikuntzak.





# Orbeldi Dantza Taldea: “Euskara beti izan da gure hizkuntza naturala”

A hobizi eta Belarri-prest-ekin batera, entitateen parte hartzea sustatu nahi du Euskaraldiak urte amaierako bigarren edizioan. Entitateez ari garenean taldeez ari gara; erakunde, eragile nahiz herriko kirol edota kultur bilgunez. Irailaren 27ra arteko epea dute izena emateko. Argibide gehigarriak: [usurbil.euskaraldia.eus](http://usurbil.euskaraldia.eus) / 943 371 999. Kultur eragileen artean ikasturte berri eta ezohikoaren atarian den Orbeldi Dantza Taldeak bat egin du, ariguneen bidez oraingoan izaera kolektiboa izango duen ekimenarekin.

## Zergatik bat egin duzue Euskaraldiarekin?

**Orbeldi D. T.:** Lehenengo edizioa positiboki baloratu zen ariketa on bat izan zen. Orain taldeetara zabaldu zenez, logika beraren baitan parte hartzea erabaki dugu. Ahal dugun heinean eragiten saiatuko gara. Euskara beti izan da gure hizkuntza naturala. Gure egunerokotasunean inoiz ez da plan-



Euskaraldiak entitateen parte hartzea sustatu nahi du. Orbeldi Dantza Taldea izan da animatu den taldeetako bat.

## ORBELDI DANTZA TALDEA

**“Ariguneetako izen-emate prozesua erraza da. Euskaraldiak bideo argigarriak atera ditu”**

teatu beste hizkuntza batean izan behar duenik ere. Baina egokia izan daiteke agian, kanpora begira zerbait egin ote dezakegun hausnartzeko.

## Dantzaren bidez euskara ere transmititzen duzue.

Guk beti lehen hitza euskaraz egiten dugu; banatzen ditugun

oharrak, komunikazioak beti euskaraz izaten dira. Gero norbaitek ez badu ulertzen, behar den hizkuntza horretan mintzatzen gara. Mugitzen garen ingurunea nahiko euskalduna da eta ez dugu arazo berezirik izan.

## Ariguneetan, talde lana izateak Euskaraldiko helburua indartzen lagundu dezake?

Bi aldeak izan ditzake. Bakarka agian ez zara animatzen, baina besteen babesean errazago. Kontra ere izan liteke, baina orokorrean talde lanak gauzak errazten ditu.

## Izen emateko irailaren 27ra arteko epea dute. Zer esan entitateei?

Izen-emate prozesua erraza da. Ondo azaltzen duten bideoak daude. Norbere hizkuntza ohituretan hausnarketa txiki bat eskatzen du.

## Ezohiko ikasturte berria prest?

Bai. Animatu dantzara, bizi dugun egoerarako ahal diren neurri guztiak hartu ditugu. Pixkanaka hasiko gara eta ikusiko dugu zer egin daitekeen. Haurren ikastaroak atzeratu ditugu, eskola kirolarekin batera hasteko.

## Dantzan hasteko prest

### Haurrak

#### Eskaintza:

- LH 1-2 astelehenetan: 1. taldea 16:45-17:45; bigarrena, 18:00-19:00.
- LH 3-4 ostiraletan: 1. taldea 16:45-17:45; bigarrena, 18:00-19:00.
- LH 5-6 asteazkenetan: 1. taldea 16:45-17:45; bigarrena, 18:00-19:00.
- DBH asteartean: 19:00-20:30.

#### Taldeak osatzeko baldintzak:

- Dantzari kopurua: 8-15.
- Gehiago badira, ordu berdinan bi taldeetan entseatuko dute. Gutxieneko kopurua heltzen ez bada talde bat,

dantzari beste ordutegi batean izena emateko aukera eskainiko zaie.

- Tokia dantzari kopuruaren arabera email bidez zehaztuko dute.
- Ikasturtearen balizko hasiera: urriak 19.
- Ikasturteko kuota: 70 euro (familia bereko dantzari gehiago egonez gero 60 euro). Ordainketak azaroan.

### Helduak

#### Eskaintza:

- Oinarrizko dantzen taldea astelehenetan: 19:15-21:15.
- Erromeria dantzen taldea

asteartean: 1. taldea 18:00-19:25/ 2. taldea 19:35-21:00.

- Dantza hastapenak asteazkenetan: 19:00-20:00.
- Euskal dantzen taldea ostegunetan: 19:00-21:00.
- Dantza garaikidea asteazkenetan (Eneko Gilekin): 19:00-21:00.

■ Oharra: entsegu tokia dantzari kopuruaren arabera zehaztuko dute.

- Ikasturtearen hasiera: irailak 28.
- Ikasturteko kuota: 90 euro (hiruhilabeteka ordainduko da). Familia bereko dantzari gehiago egonez gero 80 euro.

Dantza hastapeneko talde kideek 70 euro (familia bereko dantzari gehiago egonez gero, 60 euro).

### Izen ematea:

- Orbeldi Dantza Taldekoen sare sozialen bidez.
- Kiroldegiko dantza gela, irailaren 16an eta 17an (18:00-19:00).
- Formularioa online osatuta.

### Informazio gehiagorako:

[orbeldi.udt@gmail.com](mailto:orbeldi.udt@gmail.com) / ostegunetan 18:00-19:00 artean Kiroldegiko dantza gela.



# Ofizioen Gida



**URDAINTZI**  
eraikuntzak

649 43 54 75 / 76  
943 36 72 64  
urdaintzi.euskalnet.net

· ERAIKUNTZAK · OBRAK  
· BERRITZE LANAK

**Josue**  
Igeltseritza

Fax: 943 24 34 60  
Atallu pol. atallu. 28  
20170 - USURBIL

606 37 21 05

Igeltseritza orokorra

**Uraitz, s.l.**  
Igeltseritza  
Orokorra

Telefonia  
693 059 392

e-posta:  
uraitz@uraitz.com

Geltoki Kalea 15 behea, Lasarte-Oria

**ITZIRA**  
ERAIKUNTZAK

· gremioen koordinaketa  
· berritze lanak  
· sukaldeak  
· komunak

943 530 337  
607 119 313

errekatziki 7, USURBIL itzira@hotmail.es

**IRUARKAITZ**  
ERAIKUNTZAK, S.L.

· FATXADAK ETA TEILATUAK  
· ERAIKUNTZAK · BARRUKO BERRIKUNTZAK  
· URALITA KENTZEKO ENPRESA  
BAIMENDUA

630 90 02 79 AGINAGA



**PLAKODUR**

Eskaiola eta Pladurra

943 00 85 44 - 634 45 78 78



**Antonio URRUZOLA**  
AROTZEGIA

Tel/Fax: 943 376 415  
Asteasuain Industrialdea, 3

**BARRENETXE**  
Salsamendi Arregi, Iñaki  
AROTZEGIA

943 362 664  
Barren Etxe kalea ZUBIETA

**J. R. IBARGOEN S.L.**  
ZURGINTZA-SUKALDEAK  
ALTZARI BEREZIAK

www.carpinteriaibargoien.arotzgi.net jribargoien@arotzgi.net

943 36 14 48 - 676 45 31 76



**ARGILAN**  
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

629 272 859  
943 361 380

BORDA-BERRI 5, baxua USURBIL



**antenas Telemar**

943 55 33 99  
info@antenastelemar.com

Elkano kalea 13, HERNANI



**APARICIO**  
DEKORAZIOA ETA  
PINTURA LANAK

Tel. 943 36 60 59 628 883 943  
Puntapax, 3 - 3.B. 20170 USURBIL



**Enrique Alonso**  
ITURGINTZA  
GASA-BEROKUNTZA

Oro har libratze-lanak  
TB kamerakin hodi eta tximinien azterketa  
BAIMENDUTAKO INSTALATZAILEA

659 675 283

**Iñaki Iturgintza**

BEROKUNTZA · GASA · AIRE EGOKITUA  
ZORU BERO-EMAILEA  
ITURGINTZA · ENERGIA BERRITAGARRIAK  
info@inakiliturgintza.com · www.inakiliturgintza.com

Tfnoa.: 600 024 825

**Zuri Arrain**  
iturgintza

TEL: 678 45 31 48 · 943 651 465  
zuriarraiturgintza@gmail.com

**Rafa**  
iturgindegia

· ITURGIN LAN OROKORRAK · DUTXAKO HANPARAK  
· KONFINDATZAKO OREHIOAK · KOKUNEKO ALTZARIAK

Bordaberni kalea 1, 1 behea · 943 36 80 04



**XNORGA TXIBI S.L.**  
KRISTALDEGIA

· komertzial instalazioak  
· beira bikoitza · segurtasun beirak  
· dutxa-itxiturak eta irristailuak

943 37 17 33- 610 45 93 45  
Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA



**maiz**  
hornigaiak

· TRESNERIA ETA ERREMINTAK  
· EGUR ETA AROTZ-LANETARAKO HORNIDURA

suministrosmaiz.com (ONLINE DENDA ERE)  
Ugaldea polig. 18, USURBIL 943 36 99 39



euskara praktikoa

**AEKn, IRAKASLE BATEK  
BIK BESTE BALIO DU.**

Irakasten daki eta  
ikas dezazun nahi du.

## EUSKARA-IKASTAROAK

# Etumeta AEK euskaltegia

**Goiz eta arratsaldez Maila guztiak A1, A2, B1, B2, C1, C2  
AUTOIKASKUNTZA zerbitzua**

Kale Nagusia 43, Usurbil  
**607 609 379 · usurbil@aek.eus**  
**www.blogstopt.com**

## DIRULAGUNTZAK

**EUSKO JAURLARITZA:**  
maila egiaztatuz gero.

asistentziaren %80 betez gero, matrikularen %100



Aurrez aurreko eskolak



Mintzapraktika



Barnetegiak



Autoikaskuntza



Online



**aizu!** aldizkaria



Normalizazio-planak



Itzulpenak-Zuzenketak

**Eman  
izena**

- HABEk homologatutako euskaltegiak
- Azterketa ofizialak prestatzeko ikastaroak

[www.aek.eus](http://www.aek.eus)

673 200 100 · 946 464 000



# Dana Scarinci Zabaleta, euskaltegiko ikaslea: “Esperientzia aberatsagoa da klasera joanda”

Zabalik da Etumeta AEK euskaltegian matrikulatzeko epea (asteleheneretik ostiralera: 11:00-13:00/18:00-20:00 / 607 609 379/usurbil@ae.k.eus). Izena eman dutenen artean da Dana Scarinci Zabaleta. Argentinan jaioa, Valentzian hazia. Arbaso italiar eta leizarrak dituen euskara ikaslea, duela urte gutxi heldu zen Donostiara. Ogibidez filologoa. Txikitan valentziarra ikasterik ez zuen izan, “beti sentitu nuen zerbait falta nuela. Badakit integratua sentitzeko garrantzitsua dela bertako hizkuntza erabiltzea”. Bere bizi proiektua Txokoalden garatuko zuela ikusita, ez zuen zalantzarik izan iaz. Etumeta AEK euskaltegiko 0 taldean izena eman zuen.

## NOAUA! Nolakoa da 0 taldea?

**Dana Scarinci Zabaleta:** Denak emakumeak ginen. Oso giro ona izan genuen hasieratik. Hiztegi oso erraza hasi ginen ikasten; aurkezpenak egiteko, aditzak, orainaldian hitz egiten ikasten duzu, oinarriko hiztegia (eguneko asteak, erosketak egiteko, familiako hiztegia, ordua adieraztea...).

## Urtebetean ikasitakoa nabari duzu?



Argentinan jaioa, Valentzian hazia, Txokoalden bizi da Dana.

### EUSKARA IKASLEA

**“Eguneroko bizimodua euskaraz egin nahiko nuke, hartara integratuagoa sentituko naiz”**

Bai asko, ezer ez jakitetik zerbait jakitera igaro bainaiz. Haurrarekin kalean adibidez denek geratzen naute, haurrari hitz egiten diote eta askotan jendea euskaraz hitz egiten hasten zait. Gaur emakume batek galdetu dit umeak zenbat hilabete dituen. Iaz ez nuen ezer ulertuko, orain ezin izan diot euskaraz erantzun baina esandakoa ulertu dut. Ezer ez jakitetik pixkatxo bat jakitera dagoen alde izugarria da.

### Filologo bezala, euskarak zer izan dezake berezitik?

Euskara ikastea oso zaila dela esan da beti. Zaila da ez baitu beste edozein hizkuntzaren antzarik, esaldien egitura desberdina da. Gauzak alderantziz esan behar ditudala sentitzen dut, beste era batera pentsatu behar dudala edozer adierazi baino lehen. Jende askok dio euskara oso zaila dela, ikasi beharreko edozein hizkuntza da zaila. Baina baita ere pentsa daiteke oso interesgarria dela ikastea. Ezinezkoa da egunero zerbait eginda ezer ez ikastea.

### Pandemiak baldintzuriko ikasurte berezia bizi izan duzue.

Ikasurte erdia egin genuen

aurrez aurre. Gero, etxetik segitu genuen. Etxeko lanak bidaltzen zizkiguten.

### Nolakoa izan da esperientzia telematiko hori?

Esperientzia aberatsagoa da klasera joanda. Aurten autoikaskuntzaren bidetik segiko dut. Nire aurtengo helburua; urte amaierarako elkarrizketak ulertu ahal izatea da. Ni hor nagoelako inork ez dezala hizkuntzaz aldatu beharrik izan. Eguneroko ahalegina ez da hainbestearinokoa. Ez estresatu. Gaur ikasten ez duzuna aterako da bihar.

### Zertarako ikasi nahi duzu euskara?

Euskaraz ondo hitz egin ahal izatea, amaieraraino heltzea nahi nuke. Baina pixkanaka, nire erritmoan. Hemen eguneroko bizimodua euskaraz egin ahal izatea nahi nuke, hartara integratuagoa sentituko naiz, eta iruditzen zait jendea ere erosoago sentituko dela nire inguruan. Bestalde, haurraren bizimoduaren zati handi bat euskaraz izango da. Eta nik ere bizimodu zati horren parte izan nahi dut; eskola, lagunak... Hizkuntzak azkenean zure bizitzako arlo guztiei eragiten die.

## “Azkenean doan ari zara euskara ikasten, a ze oparia!”

**NOAUA! Matrikulazio garaian gaude, euskaltegian izena eman duzu. Euskara ikastekotan den horri zer esan?**

**Dana Scarinci Zabaleta:** Apuntatu dadila. Pixkanaka ikasten joango zara, oso ondo pasako duzu, barre asko egiten dugu. Inor ez baduzu ezagutzen, euskaltegia jendea ezagutzeko aukera ederra da baita, hona bizitzera etorri berri diren ztat adibidez. Guk whatsapppe-

ko taldea dugu. Garrantzitsua da jendeak jakitea gainera, hemen %100ean diruz lagundua dagoela euskara ikastea. Azkenean doan ari zara euskara ikasten, a ze oparia!

**Euskararen erabilera sustatzeko Euskaraldia ate joka dugun honetan, Usurbilen euskara asko entzuten duzu?**

Hemen jende askok euskaraz hitz egiten dit. Esfortzua egin

behar da, gaztelania beti entzuten da leku guztietan.

### “Bertso-magia”, Mintzlagunen 10. urtemuga ospatzeko

Erizen magia eta bertsolarien parte hartzea uztartuko dituen ikuskizuna antolatu dute Etumeta AEK euskaltegiak, Usurbilgo Udalak eta NOAUA! K.E.-k 10 urte bete dituen

Mintzlagun egitasmoaren urtemuga ospatzeko. Irailaren 26an, 18:30etan Mikel Laboa plazan. “Eriz magoak eta bertsolariak umore onean, euskararen erabileraren gaineko hausnarketak egitera eramango gaituzte. Egoerak hala eskatuko balu, ikuskizuna Sutegin izango litzateke”.

Emanaldirako izena aurrez eman usurbilkultura.eus atarian.

# Osasuna babesteko aldarriak Kontxa inguratu zuen

**E**rraustegirik ez, osasuna bai! aldarriak oihartzun zabalaren izan zuen irailaren 13an Kontxako badian. Zubietako erraustegia geratu eta herritarron osasuna babestearen aldeko giza katea egin zuten Donostian, estropadetako bigarren jardunaldi egunean. Erraustegiaren Aurkako Mugimenduak deitutako mobilizazioarekin bat egin zuten eragile anitzek; EHBildu, Equo, Ezker Anitza, Alternatiba, ELA, LAB, Eguzki, Ekologistak Martxan...

Azaroaz geroztik probaldi fasean jada lehengaiak erretzen izan eta laster, Zubietan gaineko planta guztiz martxan jarri asmo dutela ohartarazi nahi zuten, “urte askotan instalazio hau bultzatu duten talde politiko (PNV, PSE), Foru Aldundi, GHK eta enpresek (Urbaser, Murias, LKS, Altuna y Uria...). Bere tximiniei kea darie hilabete hauetan eta zorritzarrez laster frogatu ahal izango da askotan salatu ditugun pozoinak inguruan zabalitzen ari direla”. Egoera horren aurrean ordea, “urte askotan



Errausteketa baino osasuntsuagoa, ekologikoagoa eta merkeagoa den alternatiba badela gogorarazi zuten Erraustegiaren Aurkako Mugimenduak.

## GIZA KATE MUGIKORRA

**“Partaideen artean segurtasun tartea bermatuta, musukoekin eta geldialdirik egin gabe osatu zuten bidea”**

errausketaren aurka eta hondakinen kudeaketa arrazional baten alde ari garenok borrokan jarraitzen eta jarraituko dugu, askotan esan bezala badagoe-lako errausteketa baino osasuntsuagoa, ekologikoagoa eta

merkeagoa den alternatiba”, antolatzaileen esanetan.

## Giza kate mugikorra

Bizi dugun osasun krisialdira egokitutako giza katea izan da aurtengoa, “denon ahaleginez erraustegia gelditzea” xede zuena. Ilaran, partaideen artean segurtasun tartea bermatuta, musukoekin eta geldialdirik egin gabe osatu dute bidea.

## Datozenak

Erraustegiari lotutako bi hiztordu asteotarako. Asteazke-

nean, maiatzeko Arkaitzerre-kako isuriaren harira, mozioa aurkezteko zen EHBildu Gipuzkoako Batzar Nagusietako osoko bilkuran. Erraustegiaren Aurkako Mugimendutik igandeko giza kate amaieran iragarri zuenez bestalde, aste gutxi barru, duela urtebete erraustegiaren kutsugaiei buruz Zubietan Lantzenek abiarazitako ikerketa independentearen lehen emaitzak aurkeztu asmo dituzte.

## %87ko gaikako bilketa Usurbilen

Zaila zuen eta halere lortu du; beste koxka bat gora egin du Usurbilek hondakinen gaikako bilketari dagokionean. Hondakinen %87,26ko gaika biltzera heldu da udalerrri hau, atez ateko sistemari esker. Hala diote, Usurbilgo Udalak kaleratu dituen 2020ko lehen sei hilekoari lotutako datuek. Zenbait hilabeteetan (urtarrilean, martxoan edota ekainean) %89ko muga ere gainditu zen.

Datorren asteko NOAUA!n xehetasun gehiago eskainiko ditugu.



Zubietako erraustegia geratu eta herritarron osasuna babestearen aldeko giza katea egin zuten aurreko igandean Donostian,



## Arrate taberna: “Datorrenaz pentsatzen hasi behar gara”

**NOAUA! Nola eragin dizue pandemiak?**

**Iñigo Eguilegor:** Itxita izan genuen maiatzera arte. Taberna bezala ireki genuen, jubilatuta elkarrekin itxita dago. Jendea gogoz zegoen ateratzeko, egia esan oso ondo. Gero uste dut jendea atzera joan zela eta beldurra hasi zen berriz. Abuztua katastrofiko izan da. Oraindik ez da jende asko atera eta ez da etorri. Ireki dudanetik barrura 20 bat pertsona sartu direla esango nuke. Taberna handia da baina jendeak ez du sartu nahi, beldurra du. Terrazan esertzen da eta bertan zerbitzatzen dugu.

**Nolakoa da eskolarekin duzuen elkarbizitza?**

Laguntzeko prest beti. Hemen bi elementu oso garrantzitsu daude; jubilatutak eta eskola. Taberna hau eskolako jangelagatik mantentzen da. Goizetan



“Taberna hau eskolako jangelagatik mantentzen da”, aitortu digu Iñigok.

### ARRATE TABERNA, AGINAGA

**“Bezeroengatik ez balitz hemen ez nintzateke egongo”**

eskola da garrantzitsua.

**Nola aurreikusten duzue datorren udazken eta negua?**

Urte hau katastrofiko izango da. Ez dakigu hemendik bi

hilabete barru berriz konfinatuko gaituzten edo ez. Zorteak, taberna oso handia da etortzen den jendearentzako. Barra kentzen baduzu, datorrenaz pentsatzen hasi behar gara, laguntzak behar direla. Ezin da taberna bat mantendu aforo erdiarekin. Gastuak ere igotzen doaz; maskarak, gela... erosi behar dira. Gastu pilo da, inork ez ditu horiek aintzat hartzen. Laguntza oso

garrantzitsua da.

**Gertuago erosketak bonuen egitasmoarekin bat egin duzue. Lagungarritzat jotzen duzue?**

Usurbilen oso ondo dago erosketak sustatzeko, baina Aginagan denda eta taberna bakarria dago. Jubilatuta batek eskuratu behar badu, Potxoenera joan behar du bonu bat erostera? Uste dut hemen beste gauza batzuk pentsatu beharko lirakeela. Beharra dago, baina nabarmenduko ez delakoan nago.

**Egoera honetan ezinbestekoak diren bezeroei zer esan?**

Eskerrak eman. Haiengatik ez balitz hemen ez nintzateke egongo. Beti esan dute Aginagak taberna behar duela eta taberna dagoenean, esfortzu handia egiten dute. Eguraldi oso onarekin hona etorri eta hemen geratzen dira. Badakite hau izaten bada besterik ez dagoela.

## Bordatxo: “Usurbilen herriko jendearen beharra dugu”

**NOAUA! Itxierak nola eragin izan dizue?**

**Paulino Ibargoien:** Beldurgarria izan da. Ezjakintasunak sortutako zalantzak zeuden, antsietate pixka bat, nola izango zen, esan zen abendura arte ezingo genuela ireki... Nahiz eta itxita egon, gastuek hor segitzen dute. Jakinarazita gastu batzuk etetea lortzen duzu, baina beste batzuk ez. Bi hilabete eta erdiko gastua ikaragarria izan zen.

**Nola aurreikusten duzue datorren udazken-negua?**

Ez dakit atzera egingo dugun berriz. Tabernariok eguraldiarekin jokatzeko dugu. Halere nire ustez arazo handiena izango dena da, batzuk lanean hasiko diren edo ez, ekonomikoki nola dauden familiak. Egoera ekonomikoa ez da ona, tabernetan eta dendetako erosketetan nabarmentzen da.



“Bistakoa da ostalaritzak zer bizitza ematen dion herriari; kaleak beteta daudela”.

### BORDATXO

**“Terraza handitzeko Udalaren planak asko lagundu digu. Horrek segurtasuna eman digu”**

**Egoera hau luzatzen bada, are gehiago zaildu daiteke.**

Hemen denok kate bat osatzen dugu; bai ostalaritzak, merka-

taritzak, zerbitzuek... Hemen dirua dagoenean gastatu egiten da. Jendea ekonomikoki gaizki dagoenean hemen ez dago ezer egiterik. Hori kaltegarria da, baita herriarentzako ere.

**Ostalaritza sektoreak zer behar du egoera honetan?**

Orain arte jasotako laguntza poztekoa da. Laguntza manten-

duko den esperantza dugu, ez baitakigu noiz arte egongo garen horrela. Guk zortez Usurbilgo jendearekin oso ondo funtzionatzen dugu. Hemen kontsumoa urtean zehar mantentzen da.

**Gertuago, erosketak bonuen egitasmoa nola hartu duzue?**

Jendeak puntua hartzen badio, zoragarria da. Jendea zain zen. Bigarren fase honetan ikusi da jendea ari dela mugitzen. Guretzako ona dela iruditzen zaigu. Asmatuko dugula iruditzen zait.

**Bezeroen parte hartzea ezinbestekoa izango da.**

Gauza hobereana katea segitzea da. Hemen, herrian gastatu behar da. Denok dugu karro handia betetzeko erraztasuna. Usurbilen herriko jendearen beharra dugu. Laguntza oso garrantzitsua da, Usurbilen gastatu dezatela.

# Igande honetan abiatuko da Enrique Abril Errebote Txapelketa

**E**uskal Herriko 8 talde lehiatuko dira aurten. Tartean izango da Zubieta, iazko garailea. Igande honetan ekingo diote lehiari eta, gauzak ondo, urriaren 18an jokatuko da finala Oiartzunen.

Errebotea bueltan dator Zubietara. Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioak iragarri duenez, irailaren 20an abiatuko da 57. Enrique Abril Errebote Txapelketa. Zortzi lehiakide izango ditu aurten go edizioak: Noizbait 1 (Hazparne-Lapurdi), Noizbait 2 (Hazparne-Lapurdi), Luzean (Donibane Lohizune-Lapurdi), Sarako Izarra (Sara, Lapurdi), Kapito Harri (Ustaritze-Lapurdi), Behar Zana (Villabona-Gipuzkoa), Txost (Oiartzun-Gipuzkoa) eta Zubieta (Zubieta-Gipuzkoa).



Iaz Zubietak irabazi zuen txapelketa. Aurten, zortzi izango dira lehiaritu diren taldeak. Argazkia: Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioa.

## FINALA OIARTZUNEN

### Txapelketa urriaren 18ra arte luzatuko dela aurreikusitu dute

#### Lehen neurketak, Gipuzkoan

Txapelketa urriaren 18ra arte luzatuko dela aurreikusten dute antolatzaileek, beti ere eguraldiak baimentzen badie. Lehen faseko neurketa guztiak

Gipuzkoan ospatuko dira. Finalerdien osteko final handia ere bai. Azpian, Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioak txapelketa honi buruz plazaratu dituen xehetasunen berri.

#### Irailak 20 igandea

■ 9:00 Sarako Izarra-Kapito Harri.

■ Tokia: Zubietako errebote plaza.

## Itzuli bateko ligaxka jokatuko dute lehen fasean

#### Parte hartzaileak:

##### A Multzoa

- Noizbait 1 (Hazparne).
- Luzean (Donibane Lohizune).
- Behar Zana (Villabona).
- Txost (Oiartzun).

##### B Multzoa

- Zubieta (Zubieta).
- Noizbait 2 (Hazparne).
- Sarako Izarra (Sara).
- Kapito Harri (Ustaritze).

#### Txapelketako faseak

##### 1. fasea:

Itzuli bateko ligaxka.

Noiz: irailak 20-urriak 4.

Non: Oiartzungo, Villabonako eta Zubietako plazak.

##### Kanporaketan fasea

Bi finalerdi, "1. fasean multzo bakoitzeko ligaxkan aurreneko bi postuetan sailkatutako taldeak gurutzatuz (hau da,

A1vsB2 eta B1vsA2)".

Noiz: urriak 11ko asteburua.

##### Finala

Noiz: urriak 18.

Non: Oiartzungo plaza, eguraldiak txapelketaren martxa ez badu baldintzatzen.

#### Informazio gehiago:

Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioa.

## Etxealdiako pasabidea zabalik da

Aste hasieratik zabalik da Kaxkoa, tren geltokiarekin, Atallu nahiz Santuenea aldearekin lotzen duen zubia. Egitura eta zoladura konpontzen aritu da Foru Aldundia, uztaila hasieraz geroztik.



Egitura eta zoladura konpontzen aritu dira azken hilabeteotan.

## Muxurbil antzerki taldea, ikasturte berrian

Klaseak iragarri dituzte, haur, nerabe nahiz helduentzat. "Oraingoz larunbat goizetan". Osasun neurriak aintzakotzat hartuta eta talde txikiagoak osatuta bideratuko dituzte ikastaroak. Informazio gehiagorako: [ixabel.agirresarobe@gmail.com](mailto:ixabel.agirresarobe@gmail.com) 675 712 383

## Zumalakarregiri buruzko liburuaren aurkezpena

Irailaren 17an 19:00etan Potxoenean. Nafartarrak Kultur Taldeak antolatutako ekitaldirako sarrera doakoa izango da, baina aforo mugatua izango du; usurbil-kultura.eus atarian bideratu beharko da izena. Iaz Tomas Zumalakarregiren inguruan Sutegin eginiko jardunaldietan eskaintako hitzaldien edukia biltzen du argitalpen berriak.

## Izen ematea Esperientzia Eskolan eta oroimen tailerrean

Irailaren 25era arte doan eman ahalko da izena Gizarte Zerbitzuetako 943 377 110 telefono zenbakira deituta. "Covid19-ak sortutako egoera medio, horiek emateko modua aldatuko da: taldeak murriztuta, espazioak moldatuta...", ohartarazi du Udalak. Matia Institutuak Udalarekin batera antolatutako Esperientzia Eskola 55 urtetik gora izan eta ikasten segitzeko grina duten herritarrei zuzendua dago. Lahar elkargoak eta Udalak elkarlanean sustaturiko memoria tailerra adineko pertsoneri. Biak urrian abiarazi asmo dituzte.

# Hondarribia eta Orio nagusitu ziren Kontxako Banderan

**H**ondarribiko ‘Ama Guadalupekoa’ ontziak hirugarren aldiz jarraian irabazi zuen bandera. ‘Txiki’ ontziko oriotar neskek aldiz, bigarren garaipena dute jarraian.

Gizonezkoetan ez zen ezus-tekorik izan. Lehen jardunaldian bezalaxe, bigarrenean ere Hondarribia izan zen Kontxako badiako jaun eta jabe. Alex Udabe usurbildarrak bandera berri bat eskuratu du. Orio eta Josu Ostolaza aginagarra laugarren izan ziren sailkapen nagusian.

Emakumezkoen artean ere ez zen sorpresarik izan. Orio aise nagusitu zen bigarren jardunaldian. Donostiarra ontzia-



Hondarribiko arraunlariak, Kontxako Bandera jaso berritan. Argazkian da Alex Udabe usurbildarra.

rekiko 2,22 segundoko abantailarekin hasi zuten bigarren

jardunaldia, eta etxeokak fin hasi baziren ere, lehen luzea-

ren erdialdera iritsi orduko oriotar neskek aurretik ziren.

## 2020-2021eko ikastaroak Oiardo kiroldegian

### Eskaintza

■ Helduentzat: Spinning, pilates, pilates plus, 3. adina, mantendu gimnasia, zunba, jumpfrit, hipopresiboak, yoga-mindfulness, yoga edota ur jarduerak (entrenamendu trinkoa, matropilates, aquagym, igeriketa hobekuntza, igeriketa hastapena).

■ Haurrentzat: Zumba gazte, spinning (14-18 urte) edota igeriketa taldeak.

### Izena emateko epeak

Online (xehetasunak usurbil.eus web orrialdean).

### Helduak

■ Irailak 8-13: iazko ikasturtean izena emanda ibili zirenek izena emateko epea.

■ Irailak 14: izena emandako pertsona kopurua taldearen edukiera baino handiagoa bada,

zozketa egingo da. Egunean bertan abisatuko zaie erabiltzaileei.

■ Irailaren 15etik aurrera: plazaren bat libre geldituko balitz, izena emateko aukera izango lukete.

■ Helduek izena emateko formularioa, usurbil.eus web orrian.

### Haurrak

■ Irailak 15-20: haurrek izena emateko epea (iaz ibiliak izan zein ez).

■ Irailak 21: izena emandako pertsona kopurua taldeen edukiera baino handiagoa bada, zozketa egingo da. Lehenetsuna izango dute iaz ibilitakoek. Egunean bertan abisatuko zaie erabiltzaileei.

■ Edukiera eta aldagelen antolaketa medio, eskaintza egokitu dute, eta, horrez gain, adinaren arabera antolatuta dute eskaintza,

“beti ere, igeriketa ikastaroetan jarraitzeko aukera emateko helburuarekin ahalik eta haur kopuru handienari”.

### Aldagelen erabilera

■ Ikastaroetako partehartzaileek aldagelak erabili ahal izango dituzte, ikastaroa hasi baino 15 minutu lehenago sartuta; ikastaroaren ondoren, beste 15 minutu izango dituzte aldatzeko.

■ Hala ere, beharrezkoa ez bada aldagelak ez erabiltzea gomendatzen da.

### Ordainketak

■ Ordainketa guztiak bankutik helbideratuta egitea lehenetsiko da.

■ Ikastaroaren zati bat Covid-19agatik bertan behera geldituko balitz, ikastaroa bukatzean egingo litzateke dagokion proportzioaren zatia.

### Usurbilgo

### Judo Klubean

### izen emateko garaia

2020-21 kirol urtera begira da baita Usurbil Judo Elkarteak. Denboraldi berrirako izen emateko epea zabaldu dute. Astelehen eta asteazkenetan 17:30-18:30 artean Oiardo Kiroldegian bideratu ahaliko da matrikulazioa. “Oiardo Kiroldegiko aldapako sarreran egongo gara”, ohartarazi dute judo bilgunetik. Izen ematea bideratzeaz gain, duten eskaintzaren berri jasotzeko aukera izango da.

Kirol urte berria noiz hasi asmo duten ere zehaztu du Usurbil Judo Elkarteak. “Eskola adineko judoko ikastaroa urriaren 5ean hastea aurreikusten da”, ohartarazi dute judo elkarteak kideek.

## ETXEBIZITZA

## Salgai

Munalurra 16, 5ªA pisu bat salgai. 3 logela, 70 metro<sup>2</sup>. Ilogailua egitea onartuta dago eta berehala egingo da. 130.000 euro. [Interesatuak deitu: 617972350](mailto:Interesatuak.deitu:617972350).

Etxebizitza salgai Kalezarren: 79m<sup>2</sup> berritua, 2 gela, komuna, sukaldea, jangela, egongela, harriera. Dena kanpoaldera. Ganbara handia partekatua. 35m<sup>2</sup> garajea aukeran. 686462705

Etxebizitza salgai Santuenean: 2 gela, sukalde handia, egongela, komuna, bi balkoi, egongela. Argitsua, dena kanpoaldera. Etxeko eta komunitateko obra guztiak eginak. Trasteleku pribatua portalean. 677471648

Etxebizitza egin daitekeen 61 metro karratuko lokala salgai Munalurran. Nahi izanez gero, lizentzia, proiektua eta etxebizitza egiteko aurrekontua eskuragarri. 943 916 182 (Jon)

Etxea salgai, Zubiaurrenean. 70 m<sup>2</sup>. 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Balkoia trastelekua. Dena kanpora. Fatxada eta teilatua berrituta. 688 779 465.

3 logela eta ganbarako etxebizitza salgai edo alokairuan Aginagan. Berritu berria, eguzkitsua eta lasaia. Tel. 650450869

## Alokairuan

Usurbilgo erdigunean gela bat

## OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / [erredakzioa@noaua.eus](mailto:erredakzioa@noaua.eus)

Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berrienak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

alokatzen da, giza-seme langile edo jubilatua. 687 348 223.

Usurbilen, kaxkoan eta inguruan pisu bat alokatu nahiko nuke. Txakurra daukat. Hilaren 1ean ordaintzeko konpromisoa. 661115222.

Etxe bat edo logela bat alokatu nahiko nuke Usurbil edo inguruan. Kontratua beharrezkoa. 633141060

Marradun garaje bat alokairuan Bizkarre auzoan. 696 014 585

Alokairuko pisu baten bila nabil. Tel. 620 708 265 / 686 143 786.

## MOTORRA

Salmenta,  
garajeak

Volkswagen "escarabajo" bat saltzen dugu. Kotxe klasikoa baina oso egoera onean dago. 656704299.

Kale Nagusian. Garaje itxia salgai. 16m<sup>2</sup>. Goiko solairuan.

Apalategiekin. Hezetasunik gabe. Komunitateko garbitegia. 653716914

Santuenea auzoan trastero txiki baten bila nabil. 626 735 354

Nissan Terrano 2 markako kotxea salgai. 943429682 / 637293471

Kale Nagusian garaje bat salgai. Ez da garaje itxia. Prezioa negoziagarria. 667336405.

Atxegalden garaje bat erosi edo alokairuan hartuko nuke. 653014518

Garaje itxi bat alokatzen da Errekatziki kalean. Tel. 616 235 366.

## LANPOSTUAK

## Lan eskaintzak

Neska euskaldun baten bila gailtza, 9 urteko alaba zaintzeko eta etxeko lanekin laguntzeko. Arratsalde aritzeko da. 663996931.

Udan LH1eko (7 urte) ume bati klaseak emateko pertsona baten bila nabil Usurbilen. 626474232

Irailetik aurrera emakume bat behar dugu bi umei bazkaltzen eman eta eskolatik jasotzeko. Orduetgia zehazteko daukagu. 658706443

Game Masterra behar dugu Quantum Escape Room-en. Gaztea bazara, eta jokoak nahiz ihes gelak gustatzen bazaizkizu bidali [CV info@quantum.eus](mailto:CV.info@quantum.eus) helbidera

Usurbilgo neska edo mutil bat behar dugu, ingeleseko klase partikularrak emateko. 608201745

Txiribogan asteburuetarako lan-gileak behar dira. Interesatuok hona deitu: 629 951 931.

Sukaldari laguntzaile bat behar dugu Lukainategi erretegian. 680 483 164

Zerbitzaria behar da Lasarteko taberna baterako. Interesatuak deitu telefono honetara: 607110365.

Finantza eta aseguruetakoko deutzaila behar da Buruntzaldean. Baldintzak: Esperientzia gabe aseguruetan, prestakuntza enpresaren kontura eta kotxearekin. Betebeharrak: profesio-naltasuna eta seriotasuna, lanbide-heziketa eta baldintza onekin. Tel. 699 760 873

## LANPOSTUAK

## Lan eskaerak

Emakume usurbildarra naiz eta

lan bila nabil, umeak zaintzeko edo etxekolanak egiteko. 627184674.

Ingeleseko irakaslea naiz baina bestelako lanak egiteko ere prest dagoen emakumea naiz. Etxeko lanak, umeen zaintza edo helduena. 631746521.

Pertsona helduak zaintzeko emakume bat eskaintzen da. [Interesatuak deitu: 631 489 128](mailto:Interesatuak.deitu:631489128).

Astelehenetik ostiralera orduka, pertsona helduak zaintzeko emakume bat eskaintzen da. 631157290.

Pertsona helduak zaintzeko gizonetako eskaintzen da. Lanaldi osoerako edo orduka lan egiteko prest... Esperientzia eta erreferentziak ditut 603595656.

Udan umeen zaintzaile lanetan edo klase partikularrak emateko prest nago Usurbilen. 648059422

Saio partikularrak emateko eskaintzen naiz (edozein adinetako haurrei). Irakasle titulua dut eta iaz Ikastolan jardun nintzen klasea ematen. Ingelesez ere eman ditzaket saioak. 662127029.

Ekaina, uztaila eta abuztuan haurren zaintzaile lanetan edo partikularreko irakasle gisa jardun nahi dut. Esperientzia zabala dut alor honetan. 688695958

Emakume bat etxeko lanak egiteko edo adinekoak zaintzeko prest .664192760 / 722 48 39



## Zorionak Izaro!!

Ondo pasa zure egunean! Muxu handi bat etxekoan partez, eta jarraitu horrela!



## Zorionak Yaiza!!

Zure 9. urtebetetzean familia guztiaren partez. Oso ondo ospatu zure eguna.

94.

Esperientzia eta erreferentziak ditut. Etxeko lanak, pertsona helduak zein umeak zainduko nituzke, orduka zein egun osoz. 602830982

Usurbilen lan bila nabil zaintza lanak edo etxeko lanak egiteko. Esperientzia handi eta erreferentzia onak. Orduka zein lanaldi osoan aritzeko disponibilitatea. 617857807

Garbiketa eta zaintza lanak egingo nituzke. Esperientziarekin. Orduka, edo lanaldi osoz aritzeko disponibilitatea. 603315126

Garbiketa lanak, edo zaintza lanak egingo nituzke. Disponibilitate osoa daukat eta esperientzia antzeko lanetan. 631818150

Pertsona helduak eta haurrek zaintzeko edo garbiketarako aritzeko lan bila nabil. Denbora osoz edo orduka. 602424658

Eraikuntzan, jardineritzan edo bestelako ofizioetan lan egingo nuke. Bizargin moduan aritzeko ere bai. 602424658

Laguntza soziosanitarioa behar baduzu ez izan zalantzarik deitzeko. Esperientzia zabala osasun eta zaintza alorrean. Kontxu 619827232

Orduka lan egingo nuke Usurbilen garbiketa lanetan zein zaintza lanetan. 689027247

Lanaldi osoz aritzeko lan bila nabil. Esperientzia asko 661091863

Adinekoak zaintzen zein garbiketa lanak egiten esperientziaduna. Disponibilitate osoa. Egoitza

baimena ere badut. 645067560 Betza

Adinekoak zainduko nituzke. Esperientziaduna. 666097595.

Lan bila nabil. Adinekoak zain-  
tzeko prest. 617016290.

Lan bila nabilen gazte bat naiz. Garbiketarako edo pertsona helduak zaintzen, arratsaldetan edo

gauetan. Tel. 633 159 088.

#### BESTELAKOAK

Frantseseko klaseak ematen ditut udan, norberaren etxean. 600766068 Jokin

Txirrinda bat opari. 9-12 urtekoentzako. 675 712 383. Helbide honetan duzue ikusgai: <https://ibb.co/MZZxQmf>

Isabelita Mandarina Japoniarak (txoriak) ditut salgai. 659185107

Ingelesarekin laguntzeko, Usurbilgo pertsona baten bila nabil, DBH 1ean ikasten ari den nire alabarentzat. 627 18 46 74

AMC markako eltze bat daukat salgai. Oso ondo dago 943363201

Matxaka; sagarra txikitzeko tresna daukagu salgai. Itziaz 637974994.

Baserriko kalabazak salgai. 605 783 227.

Andatzpen bazkide berriak sartzeko plaza libreka daude. 669 205 896 (Aitor).

#### TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patineteak, liburuak... Atalluko Garbigunean, doan hartu daitezke. Asteleheneretik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00.

## Telefono interesgarriak

Udala.....	943 371 951	Abere-Landare Babeslea.....	943 376 650
Atez ateko bulegoa.....	900 776 776	Taxia (Angel).....	607 928 770
Udaltzaingoa.....	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz, 8 plaza).....	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada).....	943 370 148	Eusko Tren.....	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea.....	697 919 516	LurraldeBus.....	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak.....	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua.....	943 362 894
Diputazioa - Basetxea.....	943 361 215	Anbulategia.....	943 362 013
Bake Epaitegia.....	943 372 336	Amenabar botika (lehen Oa).....	943 376 076
Udarregi Ikastola.....	943 361 216	Iturralde botika.....	943 363 395
Haur Eskola.....	943 374 061	DYA.....	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola.....	943 364 600	Gurutze Gorria.....	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra.....	943 372 077	Emergentziak.....	112
Hastapen tailerrak.....	943 360 465	Genero-indarkeria, arreta.....	900 840 111 / 016
KZgunea.....	943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea.....	943 362 163
Oiardo Kiroldegia.....	943 372 498	Kutxabank.....	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia.....	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala.....	943 364 740
Zumarte Musika Eskola.....	943 371 594	Banco SabadellGuipuzcoano.....	943 370 006
Etumeta AEK euskaltegia.....	607 609 379	Banco Popular Español.....	943 370 411
Kalezar Eguneko Zentroa.....	943 365 249	BBVA.....	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza.....	943 368 770	Caja Rural Kutxa.....	943 368 842
Gure Elkartea Zahar Egoitza.....	943 371 751	Argindarra - Iberdrola.....	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza.....	692 898 492	Gas naturala - Naturgas.....	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia.....	943 361 239	Telefonica.....	1004
Noaual Kultur Elkartea.....	943 360 321	Euskaltel.....	900 840 840

## Goardiako farmaziak

**Osteguna 17** ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

**Ostirala 18** ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

**Larunbata 19** URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

**Igandea 20** URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

**Astelehena 21** GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

**Asteartea 22** URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

**Asteazkena 23** DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

## Irailak 17 - Irailak 27

**Osteguna 24** LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

**Ostirala 25** GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

**Larunbata 26** GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

**Igandea 27** GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

LARUNBATETAN,  
Usurbilgo bi farmaziak ireki-  
ta egongo dira: 9:00-13:30

**GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ**  
URRUTIA-MARTIN-HERNANI  
Etxeberri auzoa, 1. Florida  
943 55 77 38

**Gainontzeko datak [www.cofgipuzkoa.com](http://www.cofgipuzkoa.com) web orrian dituzue ikusgai.**

# Agenda iraila

## 17 osteguna

- Furgobaratza Agerreazpin. 12:00etan.
- "Tomas Zumalakarregi eta bere garaia" liburuaren aurkezpena. 19:00etan Po-txoenean.

## 19 larunbata

- Pelaiouena eraikina defintzeko garaia. 12:00etan Kalezarreko Felix Aizpurua plazan.

## 20 igandea

- Enrique Abril Errebote Txapelketa Zubietako errebote plazan. 9:00 Sarako Izarra-Kapito Harri.

## Pelαιοeneako egitasmoak lantzeko parte hartze prozesuen aurkezpena

Etorkizunean Emakumeen Etxea eta kalezarrentzako udal ekipamenduaren egoitza kokatuko dira Pelaiouenean. Bi egitasmo hauek defintzeko parte hartze prozesu bana iragarri du Usurbilgo Udalak. Larunbat honetan aurkeztuko dituzte bi ekimenak.



Larunbat honetarako ekitaldia iragarri dute Pelaiouena atarian.

### Pelaiouena atarian

- Eguna: irailak 19, larunbata.
- Ordua: 12:00.
- Tokia: Pelaiouena atariko Felix Aizpurua plaza. Euria bada, Sutegin.
- Aurrez izena eman:

parekidetasuna1@usurbil.eus  
943 377 110

- Dinamizatzailea: Elhuyar.
- Antolatzailea: Udala.

## Agerreazpin izango da Furgobaratza

Irailaren 17an 18:00-19:30 artean Usurbilgo Baratze Parkera itzuliko da Furgobaratza. Gogoan izan, "Furgobaratzaren bidez, Kutxa Ekoguneak lursailtarako aholku teknikoak eskuratzeko eta landare eta plantel ekologikoa erosteko aukera eskaintzen du".

### Informazio gehiagorako:

ekogunea.eus  
ekogunea@ekogunea.eus

## Argazki lehiaketa Santuenean

Gaitzat "Auzo koloretsua" hautatu duen argazki txapelketa antolatu du Santuena Elkarteak, adin guztietako herritarrentzat. 3 maila bereizi dituzte: haurrak (4-7 urte), gaztetxoak (8-16 urte); eta helduak. Lehiaketarako izena irailak 15-30 artean bideratu beharko da. Argazkiak aurkezteko azken eguna, irailaren 30a.

Informazio gehiago, elkarteko egoitzan edo 670 02 77 31 telefono zenbakian.

### Datozenak

## 'Harria hitz' bisita gidatua osatzeko aukera berri bat

Usurbilgo kultur altxorrez gozatzeko aukera itzuli da udalerrri honetara. Lehen bisitariak hartu zituen uztailearen 25ean aurten lehen aldiz antolatu zen Harria Hitz ekimenaren bueltan, bizi dugun osasun krisialdira egokituta, 15 laguntzako taldeekin. Usurbilgo kultur altxorrek ezagutzea ahalbidetzen duten bisita gidatuak geratzeko datoz. "Uda eta udazkenari begira sorpresa eta ekitaldi berriak prestatu ditugu zuentzat", iragarri dute sustatzaileek.

### Izena eman behar da aldez aurretik Irailak 26 larunbata

- 11:00 Usurbilgo frontoian elkartu.
- 11:05 Harria Hitz bisita gidatua herri-gunean: Dema Plaza, Udarregiren omenezko eskultura, Zumetaren murala, Mikel Laboa plaza, Tapiaren murala, Askatasuna plaza, Sagardoaren monumentua.
- Prezioa: 5 euro.
- Izen ematea: aldez aurretik. 688 81 80 17 telefono zenbakian edo info@kultour.pro helbide elektronikoan.
- Antolatzailea: Usurbilgo Udala.



**txirriStra**  
TABERNA

- Plater konbinatuak
- Ogitartekoak
- Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

  
ADA  
-MASAJEAK-  
633 36 22 33  
erreka-txiki 1, USURBIL

# Emaiozu bizitza herriari

gertu@go

www.gertuago.eus



**Alkartasuna**



**Arrate**



**Esnaola janari denda**



**Al Rai**



**Arruti harategia**



**Gure Elkartea**



**Amenabar farmazia**



**Bordatxo**



**Iratze natur denda**



**Antxeta**



**Eroski**



**Kamden akademia**



## Urbil zure beharretara egokitzen da.

Zugandik gertu egon nahi dugu, orain inoiz baino gehiago eta horregatik zure iritzia ematea nahi dugu, hobetzeko.

Erabili kode hau eta egin ezazu zure Urbil propioa.

